

## HILETA ZIBILA

### Espazioa erabiltzeko baldintzak

Eskabideak aurkezteko hurrenkera kontuan hartuta finkatuko da ekitaldia egiteko behin betiko data.

Eskaerak ekitaldia egin baino astebete lehenago aurkeztuko dituzte, gutxienez.

Epe laburragoetarako, kontsultatu erabilgarritasuna Udalinfon: 010

Astelehenetik larunbatera egingo dira hileta zibilak, 18:00etatik 20:00etara, jaiegunetan izan ezik.

Gehienez, 2 ordu iraungo du zeremoniak.

55 pertsona, eserita, edo 75, zutik, izango da baimendutako gehieneko edukiera. Eskaera egiten duen pertsona edo erakundearen ardura da ekitaldia egiten den une bakar batean kopuru horiek ez gainditzea.

Ezin da ekitaldirik antolatu gorpua aurrean dela. Errauts ontziak, ordea, ez daude debekatuta.

Zeremonian parte hartzen dutenek ez dute egingo egoitza hondatzen duen inolako ekintzarik, eta interesdunak bere gain hartuko ditu sortu litezkeen kalte edo hondamenek eragindako gastuak.

Lokaleko ikus-entzunezko tresnak erabil ditzakete ekitaldian, haiek kudeaketaz arduratzen diren profesionalak ikuskatuta.

Lokalaren mugakide den lorategi gunea erabil dezakete, Cristina Enea Fundazioak ezarritako baldintzetan eta haren zaintzapean.

Ezin da errautsik zabaldu Cristina-enea parkean, Zibismoari, Bide Publikoaren Erabilera eta Garbiketari eta Hiri Paisaiaren Babesari buruzko Udal Ordenantzak 14f artikuluan jasotzen duen bezala.

Ibilgailuak ibiltzeko baimena izango da mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzeko edo ekitaldia antolatzeke behar diren materialekin zamalanak egiteko.

Behar hori eskaeran aipatu beharko dute. Hiletan, Cristina-Enetik kanpo egon beharko du ibilgailuak.

## FUNERAL CIVIL

### Condiciones de uso del espacio

- 1 La fijación de la fecha definitiva para la celebración, se realizará atendiendo al orden de presentación de solicitudes.
- 2 Las solicitudes se realizarán al menos 1 semana antes de la celebración del acto. Para plazos menores, consultar disponibilidad en Udalinfo: 010
- 3 Los Funerales Civiles se celebrarán de lunes a sábado de 18 a 20 horas, excepto festivos.
- 4 La duración máxima de la ceremonia será de 2 horas.
- 5 El aforo máximo permitido es de 55 personas sentadas o 75 de pie. Es responsabilidad de la persona o entidad solicitante garantizar que este aforo no sea superado en ningún momento de la celebración del acto.
- 6 En los actos no está permitida la celebración con cuerpo presente. Sí se permite la presencia de urnas de cenizas.
- 7 Quienes asistan a la ceremonia, se abstendrán de realizar cualquier acto que pudiera suponer deterioro de las dependencias, asumiendo la persona interesada los gastos que, en su caso, se produjeran por daños o desperfectos que pudieran ocasionarse.
- 8 El equipamiento audiovisual existente en el local podrá ser utilizado en el transcurso del acto bajo la supervisión de los/las profesionales que se ocupen de su gestión.
- 9 Podrá utilizarse la zona ajardinada lindante al local en las condiciones establecidas por la Fundación Cristina Enea y bajo su supervisión.
- 10 No se permiten arrojar cenizas en el Parque de Cristina Enea, tal y como recoge la Ordenanza Municipal sobre el Civismo, el Uso y la Limpieza en la Vía Pública y la Protección del Paisaje Urbano, en su artículo 14f.
- 11 Se permitirá el acceso de vehículos solamente en casos de transporte de personas con dificultades de movilidad o para labores de carga y descarga de materiales necesarios para la organización del acto. Esta necesidad se incluirá en la solicitud. Durante la celebración, el vehículo tendrá que estar fuera de Cristina Enea.



Lokala apaindu edo modu berezian egokitu nahi badute, eskaeran bertan adierazi beharko dute. Lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte, eta eskatzaileak ordaindu beharko ditu eragindako gastuak.

Udalari dagokio apaintzeko proposamenak mugatzeko ahala. Ekitaldiaren ondoren garbiketa berezia behar izanez gero, pertsona edo erakunde eskatzaileak arduratu beharko du.

Egoitzan ezin da janaririk edo edaririk kontsumitu.

Zeremoniaren garapen normala bermatzeko, akordio honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela zainduko dute.

Udalak proposamen guztiak aztertuko ditu, eta baimendutako espaziorako desegoki edo kaltegarri gerta daitezkeenak mugatzeko eta baztertzeko aukera izango du.

Edozer dela eta, hileta ekitaldirako espazio hura erabiltzea ezin dela baimendu erabakiz gero, interesatuarekin harremanetan jarriko da arduraduna. egoera jakinarazi eta beste aukera batzuk bilatzen saiatzeko.

- 12** Si desea ornamentar el local o acondicionarlo de forma especial, deberán comunicarlo en la solicitud, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a cargo de la persona solicitante, los gastos que con este motivo se produzcan.  
El Ayuntamiento se reserva la posibilidad de limitar las propuestas de ornamentación presentadas. En caso de que se requiera limpieza especial tras la celebración, ésta correrá a cargo de la persona o entidad solicitante.
- 13** No está permitido el consumo de alimentos ni bebidas en el local.
- 14** Para garantizar el normal desarrollo de la ceremonia, se velará para que se cumplan las condiciones establecidas en este acuerdo.
- 15** El Ayuntamiento, valorará todas las propuestas y se reserva la posibilidad de limitar y rechazar aquellas que considere pueden dañar o no ser adecuadas de realizar en el espacio habilitado.
- 16** En caso, de que por cualquier causa, se considere que no se puede autorizar el uso del espacio para el acto funerario, se contactará con la persona interesada a fin de comunicarle la situación e intentar buscar posibles alternativas.